

INFORMAZIO-, HAUSNARKETA- ETA DEFINIZIO-TOPAGUNEA

Dokumentu honen asmoa da La Herrerako prozesuaren laugarren bileran hitz egindakoa laburbiltzea. Seguru asko, ez da egongo jasota hitz egindako edo esandako guztia, baina hori ere ezinezkoa da. Zerbait garrantzitsua falta dela irudituz gero edo zerbait zuzendu nahi izanez gero, jakinarazi Imanoli (imanol@elhuyar.com).

El presente documento tiene por objeto resumir lo acontecido en la cuarta reunión del proceso de La Herrera. Seguramente, no recoge todo lo hablado o dicho, lo cual es prácticamente imposible. Si a alguien le parece que falta algo importante o que conviene realizar alguna corrección, puede ponerse en contacto con Imanol (imanol@elhuyar.com).

<p>4. bilera 2009-07-04, 10:00-12:00</p>	<p>4ª reunión 04-07-2009, 10:00-12:00</p>
<ol style="list-style-type: none"> 1. Sarrera 2. Laburpen-dokumentua egokitzea 3. Diaporama aurkeztea 4. Batzordearen jarduera sendotzea 5. Dokumentua alkateari nola eman antolatzea 6. Prentsaurrekoa egokitzea 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Introducción 2. Afinar el Documento de síntesis 3. Presentación del diaporama 4. Consolidar la actuación de la Comisión 5. Organizar la entrega del documento a la alcaldesa 6. Afinar la conferencia de prensa

<p>Laburpena</p>	<p>Resumen</p>
<p>Sarreran, prozesuari eta saio honi buruzko zenbait alderdi gogorazi ditugu: aurreko saioak eta edukiak, laburpen-dokumentua, gaurko gaiak...</p> <p>Aurreko saioan, adostasun-irizpideak sendotu genituen. Gaurkoan, ondorengoetan ahalegindu gara:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Laburpen-dokumentua egokitzen. Guztia berrikusi dugu eta behin betiko onarpena eman diogu, parte-hartzaile guztiek. • Prozesuan zehar egindako argazkiak ikusi ditugu, diaporama batean. • Batzordearen osaera sendotu, jende gehiago sartuta eta beharrezkoa den jardueretan. • Dokumentu hori alkateari eta Parte Hartzeko zinegotziari nola emango diegun antolatu. • Prentsaurrekoa berrikusi eta antolaera are gehiago egokitu. Ondoren, prentsaurrekoa eman. <p>Saioa eta orain arteko prozesua amaitzeko, mokadu bat jan dugu.</p>	<p>En la introducción, hemos recordado ciertos aspectos relativos al proceso y a la sesión: sesiones anteriores y contenidos, el documento síntesis, puntos de la sesión de hoy...</p> <p>En la sesión anterior, consolidamos los criterios en los que coincidíamos. En la sesión de hoy nos hemos esforzado en:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Afinar el documento de síntesis que ha sido revisado y ha quedado finalizado y totalmente consensuado por los y las participantes. • Ver el diaporama del proceso realizado. • Afianzar la comisión en su composición integrando más voluntarios/as y en las acciones necesarias. • Organizar la entrega de dicho documento a la alcaldesa y a la concejala de Participación. • Revisar y afinar la organización de la conferencia de prensa y posteriormente realizarla. <p>Para finalizar, hemos cerrado la reunión y el proceso hasta la fecha con un lunch.</p>

Ondoren, egindako lana edo hitz egindakoa xeheago azaltzen da.
A continuación, se expone con más detalle el trabajo realizado.

Guztiak dokumentua jaso zutela egiaztatu ondoren, dokumentu hori (**La Herrerako parte hartzeko prozesua laburbiltzeko dokumentua**) berrikusi genuen. Zenbait elkarpen egin ziren, eta horiek eztabaidatu ondoren, adostutakoak behin betiko dokumentuan sartu dira. Dokumentu hori parte-hartzaile guztiek jasoko dute.

Prozesuan zehar saioz saio ateratako argazkiekin diaporama bat egin da eta hori proiektatu zen. Horri esker, saio bakoitza eta horietan egindako lana gogoratu genuen. Erabaki zen diaporama hori Batzordeari emango zitzaiola eta edonorentzat egongo zela eskuragarri, norbaitek nahi izanez gero eskatu besterik ez zeukala.

Batzordeak egin duen lanaren berri eman zuen eta han zeuden guztien laguntza eta lanerako gogoia eskatu zituen, lanari lotu eta prozesuak behar bezalako emaitzak izan ditzan.

Taldeak ondorengoa erabaki zuen:

1. Bat egitea adostutakoarekin
2. Batzordea zabaltzea. Azkenean, hauek osatuko dute:
 - Ana Alkorta
 - Iñaki Aristi
 - Josetxo Dominguez
 - Maite Fernandez
 - Aitor Gonzalez
 - David Martinez
 - Leire Outeiral
 - Karmele Rivera
 - M^a Jesus Martinez Morillo
 - J. Antonio Roldán
 - Ovidio Gerrikaetxebarria
 - Uxue Aristizabal
 - Kike Santiago
 - Miren Alzaga
 - Guillermo Graña
 - Angel Ouviaña
 - J. Manuel Sanlés
3. Prest dagoela bakarka edo talde txikietan Batzordeak eskatutako lan zehatzak egiteko, bakoitzaren gaitasunak aprobetxatuta.
4. Prest dagoela mobilizatzeko behar den guztietan, bai behar denean, baita sentsibilizatzeko edo zabalpena emateko ere, lan honek zenbateko babes daukan eta Batzordeak nolako babes daukan erakusteko.
5. Orain arte egindakoa ezagutarazteko ekintza zehatzak egitea Batzordeak, Trintxerpera begira ez ezik, Pasaiako gainerako barruti eta auzoetara ere bai: Antxo, Donibane, San Pedro... eta Altza...

Gero, eztabaidatu egin zen ea **nola aurkeztu behar zitzaien laburpen-dokumentua alkateari eta Parte Hartzeko zinegotziari**, bilera honetan bertan.

Ondorengo erabaki zen:

1. Prozesu honen garrantzia aitortzea eta Alkatetzari eskertzea martxan jarri eta ekipamenduak eman izana; halaber, eskatu bide honetatik jarraitzeko, baina era orokorragoan eta ez une "puntual" batzuetan bakarrik.
2. Batzordeko bi kidek sinbolikoki dokumentua ematea Maider Ziganda alkateari eta Obdu Lorenzo Parte Hartzeko zinegotziari.
3. Prozesuko emaitzak bere egingo dituztela eta Alkatetzak errespetatu egingo dituela egiaztatzea.
4. Pertsona bakoitzak, bere kabuz, adostutakoari jarraituz, galderak egin edo iritzia ematea, eta alkatearekin eta zinegotziarekin natural hitz egitea.

Gero, Batzordeak azaldu zuen nola **prentsurrekoa** antolatu zuen eta alkateari dokumentua eman ondoren izango zela. Prentsurrekoa honela zegoen antolatuta: bi batzordekidek prozesuan egindakoa eta ondorioak irakurri; tarte bat utzi galdera-erantzunentzat; saioko gainerako jende guztia batzordekideen atzealdean kokatuta, lagun horiei babesa adierazteko. Talde handiak ados zegoela adierazi zuen eta prentsurrekoan egoteko prest azaldu zen.

Geroko jarduera guztiak antolatutakoan, alkatea eta zinegotzia bilerara sartu ziren eta **dokumentua jaso zuten formalki**.

Alkateak eta zinegotziak agiria jaso eta eskerrak eman zizkieten guztiei lan honetan aritzeagatik eta egindako ahalegin handiagatik; adierazi zuten gustura zeudela lagun askok hartu zutelako parte eta prozesu honetan lortu zen ordezkaritza-mailarekin; horrek erakusten duela zeinen garrantzitsua den parte-hartzearen aldeko apustua egitea eta oinarria izango dela eta indarra emango diela lanean jarraitzeko; esan zuten hau lehen urratsa dela, eta lanean jarraituko dutela hau guztia zehazteko.

Esan zuten garrantzitsua zela lortutako adostasuna eta berriz ere baieztatzen zutela prozesuaren emaitzak beren gain hartu eta errespetatuko zituztela, eta herritarren autonomia errespetatuko zutela.

Esan zuten hasiera-hasieratik garbi geratu zela erabakitzeko eremua Pasaiari zegokiola eta erabakitzeko ahalmena zeukatenak pasaitarrak zirela; adierazi zuten prozesuaren emaitzak ez zirela hemen geratuko eta hurrengo astetik aurrera tartean ziren instantzietara eramango zituztela.

Aurkezpenaren amaieran, **hizketaldia izan zen udal-ordezkarien eta herritarren artean**, eta besteak beste ondorengoak agertu ziren:

- Batzordearen lana aitortzea, bere zilegitasuna eta autonomia, eta lanerako baliabideez hornitzea (agiriak, kopiak, berriak...).
- Dokumentua emate hori formalizatu beharra, baina batez ere transmititu beharra dagoela egindako guztia prozesu zabal baten emaitza dela, egindakoak Trintxerpe eta Pasaiako biztanle askoren babesa daukala, eta horretarako ona litzatekeela diaporama ezagutaraztea.
- Batzordeak (eta herritarrek) lanean jarraitu dezatela eta tartean daudenekin zuzenean jar daitezela harremanetan, baita udal-taldeekin ere, eta azken horiei

LA HERRERA

INFORMAZIO-, HAUSNARKETA- ETA DEFINIZIO-TOPAGUNEA



gogorarazi behar zaiela nork aukeratu zituzten: orain adostutako hau kontuan hartzeko eskatzen dieten horiexek.

- Arriskua dagoela Administrazioak orain arte egindakoa oztopatzeko eta hori ez gertatzearen ardura Alkatetzari dagokiola. Berriz ere ez daitezela eman arrazoi teknikoak herritarren erabakiak indargabetzeko.
- Erabakitakoa azken muturrera arte defendatzea, paper desberdinak hartuta eta herritarren autonomia erabat errespetatuta.
- Lan egitea eztabaidetan ez daitezen egon desorekarik botere publikoen eta herritarren artean; izan ere, lehenek askoz ere leku gehiago hartzen dute.
- Herritarren parte-hartzea orokorra izan dadila, proiektu guztietan eta irismen orokorrarekin.

Horren ondoren, prentsaurrekoa egin zen eta amaieran mokadua jan genuen, giro ederrean.

Después de comprobar que cada persona hubiera recibido el documento, se procedió a **revisar el “Documento síntesis del proceso participativo de reflexión y definición para la Herrera”** y se hicieron diversos aportes que fueron debatidos y consensuados y se introducirán al documento final (se enviará a cada participante).

Se visualizó el diaporama del proceso elaborado, que permitió reconocer y recordar las diferentes sesiones y momentos. Se acordó hacer entrega del mismo a la comisión y que cualquiera que quisiera lo solicitara y pudiera tener acceso al mismo.

La **comisión de trabajo** informó de su trabajo y pidió colaboración y disposición a todas las personas presentes a empeñarse a fondo en el trabajo para que el proceso dé sus frutos.

El grupo acordó:

1. Su adhesión a lo acordado
2. Ampliar la comisión, que finalmente la integrarán:
 - Ana Alkorta
 - Iñaki Aristi
 - Josetxo Domínguez
 - Maite Fernández
 - Aitor González
 - David Martínez
 - Leire Outeiral
 - Karmele Rivera
 - M^a Jesus Martínez Morillo
 - J. Antonio Roldán
 - Ovidio Gerrikaetxebarria
 - Uxue Aristizabal
 - Kike Santiago
 - Miren Alzaga
 - Guillermo Graña
 - Angel Ouviaña
 - J. Manuel Sanlés
3. Estar dispuestos/as a asumir individualmente o en pequeños grupitos, trabajos concretos que pida la comisión, para aprovechar las diferentes capacidades.
4. Estar dispuestos/as a movilizarse cuando sea necesario y también para el trabajo de sensibilización y difusión, para movilizarse demostrando el amplio apoyo que este trabajo tiene y la representatividad real de la comisión.
5. Incluir en el trabajo de la comisión acciones para dar a conocer/ sacar a la calle lo hecho y no solo hacia Trintxerpe, sino incluir el resto de barrios de Pasaia: Antxo, Donibane, San Pedro... y Altza...

Se procedió a discutir la forma de **presentación del documento síntesis del proceso a la alcaldesa y a la concejala** responsable de participación, previsto para esa misma reunión.

Se acordó:

1. Reconocer la importancia de este proceso y agradecer a la alcaldía su puesta en marcha y la disposición a poner equipamientos y a la vez pedir que se siga profundizando en estos esfuerzos de manera más global para que no sean momentos “puntuales”.
2. Hacer entrega simbólica del documento por las dos personas de la comisión escogidas a la alcaldesa Maider Ziganda y a la concejala de participación Obdu Lorenzo.
3. Validar que asumirán los resultados del proceso y que la alcaldía los respetará.
4. Que cada persona de manera libre, manteniendo la línea acordada, haga sus preguntas o intervenciones y que se dialogue de manera natural con la alcaldesa y la concejala.

Posteriormente la comisión de trabajo explicó como había organizado la **conferencia de prensa**, a realizar una vez concluido el intercambio con la alcaldesa. La conferencia consistiría en una presentación sintética de lo hecho y de las conclusiones por dos personas de la comisión encargadas de la lectura, luego un espacio para preguntas y respuestas, mientras la totalidad de los presentes se ubicarían a las espaldas de la mesa para respaldar el trabajo de las dos personas. El conjunto del grupo asumió por consenso lo preparado y su voluntad de estar presente en la misma conferencia.

Una vez terminado de organizar todas las actividades posteriores, se invitaron la alcaldesa y la concejala a pasar y se les hizo **entrega formal del documento**.

La **alcaldesa y concejala** recibieron el mismo y agradecieron a las personas presentes el tiempo invertido y la calidad del esfuerzo hecho, se declararon muy satisfechas del número de participantes y del grado de representatividad que se había logrado con ese proceso y que eso permitía confirmar lo valioso de la apuesta por la participación y daba base y energía para seguir trabajando. Que esto era un paso, una primera fase y que se seguiría trabajando para que eso se concretara.

Que era muy importante el consenso logrado y que reafirmaban su voluntad de asumir y respetar los resultados del proceso y respetar la autonomía de la ciudadanía.

Que desde el inicio había quedado claro que el ámbito de decisión era Pasaia y el sujeto de decisión los y las Pasaitarras y los resultados del proceso no quedarían aquí y que desde la próxima semana se comenzaría a trasladarlo a las diferentes instancias involucradas.

Al finalizar la presentación se generó un intercambio **entre la ciudadanía y los representantes municipales**, entre otros elementos salieron:

- El reconocimiento a la comisión de trabajo, a su legitimidad y autonomía y que se dote de medios de trabajo (documentos, copias, noticias,...).
- La necesidad de formalizar la entrega del documento, pero sobre todo de que se logre transmitir que lo elaborado es fruto de un proceso amplio que tiene amplio respaldo entre los y las habitantes de Trintxerpe y Pasaia, para lo que sería bueno también dar a conocer el diaporama.

LA HERRERA

INFORMAZIO-, HAUSNARKETA- ETA DEFINIZIO-TOPAGUNEA



- Que la comisión (y la ciudadanía) mantengan su trabajo y se relacionen directamente con los diversos sujetos involucrados, incluyendo los diferentes grupos municipales a los que hay que recordarles que han sido elegidos por esa misma ciudadanía que ahora le pide retome lo consensuado.
- Que es tarea de la alcaldía impedir que el filtro administrativo desvirtúe lo construido y que no se use el elemento técnico de manera intencional para, otra vez, desvirtuar la decisión de la ciudadanía.
- Defender hasta el final lo decidido, desde roles diferentes y con pleno respeto a la autonomía ciudadana.
- Trabajar para que en los debates no haya desequilibrios entre los poderes públicos, que tienden a acaparar mucho más espacio, y la ciudadanía
- Que la participación de la ciudadanía sea general, en todos los proyectos y con un alcance global.

Se finalizó el momento y se procedió a la conferencia de prensa y posteriormente al lunch.